

Nafarroa kulturala. Profesionalizazioari eta ikaskuntzari laguntzea kulturaren eta sormenaren eremuan.

GUNE ETA ZERBITZU KULTURALETARAKO IRISGARRITASUNA

Online prestakuntza (8 ordu), martxoaren 17tik apirilaren 7ra

Ikasle-kopurua taldeko: 15

1. taldea: 9:30 -11: 30 / 2. taldea: 12:00 - 14:00

HELB. ELEKTR.: plancultura@navarra.es

TELEFONOA:

848 427184

HELBURUA: Tresnak eta baliabideak lortzea irisgarritasun unibertsala kultura-ondasun eta -zerbitzuetan integratzeko.

HARTZAILEAK: Kultura-eragileak, kultura-kudeaketako profesionalak, kultura-erakundeak eta -elkartek, irisgarritasunean interesa duten langileak.

METODOLOGIA: Irekia, malgua eta parte-hartzailea; praktikoa eta aplikatua, taldea baliabide didaktiko gisa aprobetxatuz eta teoriaren eta aplikazioaren arteko koherentziarik handiena bilatuz, ariketa praktikoak, simulatutako egoeretako saioak, exenplifikazioak eta abar eginez.

Nork emana: Koine-Aequalitas

Koine-Aequalitas fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta egoitza Nafarroan du. 2002az geroztik, diziplina anitzeko ikuspegi batetik lan egiten ari da herritarren bizi-kalitatea, garapen soziala eta aukeraberdintasuna hobetzeko, bereziki herritarrak desgaitasun- edo mendekotasun-egoeran eta/edo gizarte-bazterketako egoeran badaude.

Haren asmoa da jardun-eremu bakoitzean, eskura dauden baliabideak, portaera etikoa, berrikuntza, kalitatea, sinergia eta proiektuen eta zerbitzuen jasagarritasuna optimizatuz, beharrei erantzun eraginkorrena ematen dien erakundetzat har dezaten.

KRONOGRAMA

SAIOAK EZ DIRA GRABATUKO. Ikastaroa praktikoa denez, ezinbestekoa da saioetan parte hartzea prestakuntza egiteko.

● **Martxoaren 17a, OSTEGUNA:** Irisgarritasunaren hastapenak

Saio honetan, sarrera bat eginen da irisgarritasunari buruz: zer esan nahi dugun irisgarritasuna aipatzen dugunean, zergatik den garrantzitsua... Gainera, desgaitasun mota desberdinak dituzten pertsonen beren esperientzia kontatuko dute kultura-ondasun eta -zerbitzuen erabileran. Elkarrizketa bat sortuko da parte-hartzaileekin, sentsibilizazioa sustatzeko.

● **Martxoaren 24a, OSTEGUNA:** Kultura ondasun eta zerbitzuetarako irisgarritasunaren eskuliburuaren aurkezpena

Kultura ondasun eta zerbitzuetarako irisgarritasunaren eskuliburu sakonki aurkeztuko da, bai eta jardunbide egokiak ere. Zalantza guztiak argituko dira, eta, taldeka, desgaitasuna duten pertsonen kultura-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko gaur egun dituzten oztopoei buruz lan eginen da.

● **Martxoaren 31, OSTEGUNA:** Saio praktikoa

Saio honetan taldeka lan eginen da kasu praktikoen bidez. Talde bakoitzak gune, zerbitzu edo beste zerbaitei irisgarria izan dadin ezarri beharreko neurriak aztertuko ditu. Ondoren, kasuak eta ezarri beharreko neurriak aurkeztuko zaizkio talde osoari.

● **Apirilaren 7a, OSTEGUNA:** Laburpena, azken ondorioak eta zalantzak